

# IKUSEZINA IKUSGAI EGIN

Ezindu fisikoak, sexu  
eskubideak aldarrikatu  
beharrean oraindik

 **GIZARTEA** / xole.aramendi@gaur8.info

Sexua orokorrean tabua bada gure gizartean, zer esanik ez «desberdinak» direnentzat. Ezintasun fisikoren bat duten pertsonak, oraindik, euren eskubideen aldeko aldarria egin beharrean aurkitzen dira.

**S**exualitateari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, sexuari buruzko hezkuntza jasotzeko eskubidea, sexualki adierazteko eskubidea, amatasunerako eta aitatasunerako eskubidea, izaki sexudun gisa tratatuak izateko eskubidea, sendagaiek sexualitatean izan ditzaketen eragin kaltegarriari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, pribatutasuna eta intimitatea edukitzeko eskubidea, bikoteak sortzeko eskubidea, beste pertsona batzuekin harremanak izateko eskubidea... Zerrenda luzea da, oraindik egiteko dagoen bidearen erakusle.

Edonork bere esku izan behar lituzkeen eskubideak dira, baina urritasun fisikoren bat duten pertsonen ari bagara, kontua asko zailtzen da. «Badirudi ezintasun fisikoren bat dugun pertsonok ez daukagula sexurik», kexu da Silvia Apodaka, Gasteizko Eginaren Eginez elkarteko kidea. Toki publiko batera iritsi, eta berea «hirugarren sexua» den sentimendua gailentzen zaio. «Edonora zoaz eta komunak gizonetzkoentzat, emakumezkoentzat eta ezinduentzat dira. Hirugarren sexua gara».

Ana Ramirez de Ocariz Sorolla sexologoak eta Silvia Apodaka Eginaren Eginez elkarteko kideak animoz begiratzen diote aurrean duten bide luzeari.

Juana RUIZ | ARGAZKI PRESS

«Pertsona guztien eskubideak dira, baina inportantea da nabarmentzea beste edonork adina eskubide dugula geuk ere», argitu du.

Inguruko ezjakintasunak eta estigmatizazioak, batetik, eta norbere lotsak eta beldurrak, bestetik, estalitako gaia da, ikusezin egin arte. Horregatik saiatu ziren joan den uztailean egindako jardunaldietan ikusgai egiten. Eginaren Eginez elkartek antolatu zituen, Emaize Sexologia Zentroaren laguntzarekin. «Gizartean eztabaida sortzea da helburua», adierazi du Silvia Apodakak. Urte luzez, ezindu fisikoak oinarrizko eskubideen aldeko borrokan aritu dira –oztopo arkitektonikoak desagertzeko, esaterako– eta sexualitatearen inguruko arazo





eta kezka norberaren baitan geratu dira. «Kasu askotan, ezin du fisikoek baztertuta daukaten bizitzaren alorra da nabarmendu du Apodakak. Nolabait esateko, 'armairutik ateratzea' da kontua».

Eginarez Eginez elkarteko ki-dearen alboan Ana Ramirez de Ocariz Sorolla sexologoa dago, Emaize zentroko langilea. «Urte asko pasa beharko dira 'nire eskubidea hau da' esanez norbait atera arte. Adibidez, 17 urteko gazte bat koitoaren osteko pilula eskatzera badoa, ukatzen badiote ere ez du salatuko. Sexualitatea eta erotikari lotuta dagoen gertaerarik ez da mahai gainean naturalki eta lasai jartzen. Norberak oso berea du, eta zaila da bertan inor sartzea edo gu ezer kontatuz ateratzea. Oso konplikatua da», esan du.

Apodakaren esanetan, gizar-teak zure aurrean erreakzio jakin bat badauka, zu, neurri batean, horretara egokitu zara.

Ados dago Ana Ramirez de Ocariz. «Pertsona erdiak balira bezala tratatuak sentitzen dira eta horrek eragina du eurengan. Askotan norberak jartzen dizkio mugak bere buruari: 'nola desiratuko dut pertsona hori?' edo 'nola desiratuko nau berak nik?' pentsatu eta aukerarik egon dadin ez dugu pausorik ematen».

«Sexua tabua da gizarte honetan eta estandarretik ateratzen den edozer, are eta gehiago. Ezindu fisikoen sexualtasuna soziaiki onargarria denetik kanpo geratzen da», gaineratu du.

Guztioi inposatu nahi zaigun sexualitate hegemonikoaren eragina kaltegarriago izan daiteke ezindu fisikoen kasuan. «Koitoari eta genitali loturiko ere-

dua da eta beste guztia erabat 'kanpo' dago. Hortik ateratzen den edozein asexualizat hartzen da, desiorik eta eskubiderik gabeko norbait. Maitemintzen ez diren edo sentitzen ez duten pertsonak bezala hartzen dira», esan du Emaizeko sexologoak.

«Noski, eredu hau aldatzen badugu, sexualitatea bizitzeko beste modu batzuk hor daudela erakusten dugu, pentsamoldea irekiz. Eta honek gizartearen %100ari eragiten dio. Hau da gako eta txindurrien lana ari garagiten, aldaketaren bidean. Guztiok daukagu eredu hau erabat barneratuta eta geure buruari mugak ari gataizkio ezartzen. Bestela 'arraroa' zara. Zuk sexualitatea bizitzeko duzun modu bakar eta berezia da balio duena, ezintasuna izan ala ez», jarraitu du.

#### INGURUAK BEGIAK ITXITA

Inguruak ez du askorik laguntzen. Senitarteko eta lagunentzat, kasu askotan, kontu zaila da hau. Badira ezindu fisikoak tutoretzapeko etxeetan, egoitzetan edota erietxeetan daudenak ere. Zer gertatzen da eremu hauetan? «Kasu batzuetan ez zaie burutik pasa ere egiten sexualtasuna garatzeko eskubidea badaukazunik ere, eta beste batzuetan ezkutatu egiten da. 'Zer gertatzen ari den ez badut ikusten ez dut ezer egin beharrik' pentsatzen dute. Zentro itxietan bi pertsonen artean harremanen bat dagoela konturatzen direnean, pilulak ematen dizkiete sexu desioa desager dadin», azaldu du Ramirez de Ocariz.

Silvia Apodakak gogora ekarri du duela urte batzuk oihartzun handiz zabaldu zela aulki gur-

**«Filma interesgarria da senideak edo zaintzaileak jabetu daitezen ez soilik posible dela, baizik eta beraiek ere sexualitatea garatzen laguntzeko ardura dutela. Eskubidez harago, obligazioa da»**

**«Gutxieneko baldintzarik ez dago osasun zentroetan. Ginekologia azterketarako mahaiak ez daude egokituta. Hortik, pentsa...»**



«Intimate encounter» argazki sortaren irudietako bat. BELINDA MASON-LOVERING



Gerry Hewson paralinpiar kirolaria, bere emaztearekin. BELINDA MASON-LOVERING

pildun batean zegoen gizon bat prostituzio etxe batera joan zela. «Bere eskubidea zen, eta notizia bilakatu zen», gaineratu du.

Solasaldiaren harira, Jean-Pierre Sinapi zuzendari frantziarraren «Nacional 7» lana dute hizpide. «Pelikulan ikus daiteke ezindu fisiko batek bere sexu eskubidea aldarrikatzen duenean zaintzaile batek nola laguntzen dion. Umore kutsu handiz egindako filma da baina islatzen zuena eskubide baten aldarria da azaldu du Elena Abalosek, Eginaren Eginez elkarteko gizar-te langileak. Erakundeen jarra ezkutatu eta ukatzea da. Interesgarria da senitartekoak edo zaintzaileak honetaz ere jabetu daitezen, ez soilik posible dela, baizik eta sexualitatearen garapena laguntzearen arduradun ere badirela. Eskubidez harago, obligazioa da».

Ramirez de Ocariz iritzian, «filmak erakusten du egoitzako langileen borondatearen arabera eongo dela eskubidea betetzea edo ez». «Bai, ez da zure eskubidea, nik hala nahi dudalako laguntzen dizut», zehaztu du Silvia Apodakak.

Sexualtasuna garatzeaz ari gara, baina osasun zerbitzuak nola dauden kontuan izanda amets baten itxura hartu du gaiak. «Gutxieneko baldintzarik ez dago osasun zentroetan. Ginekologia azterketarako mahaiak ez daude egokituta. Potroa diseinatzerakoan ez zaie bururatu igo eta jaitsi egin daitekeen ezer egiterik. Bertara igotzera doazenean, ez dadila beste emakume batenzat baino egoera laidogarragoa izan... Hau jakinda, pentsa ezazu osasunaren gaineko kontrola edota sexu orientazioa zertan dagoen», salatu du Elena Abalosek.

«Askori ginekologia azterketa ez diete egiten ez konplikatzeagatik», argitu du Silvia Apodakak. Arabako osasun sistema publikoan ez dago sexologorik eta «sendagile asko ez dira ezinduekin modu egokian komunikatzeko gai. Ezinduoitu tratu desberdina ematen digute, kasu batzuetan bai», esan du Silvia Apodakak.